

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BARRUNDIKO UDALA

#### **2020ko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea eta zergabiltetarako aldia**

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren errolda, 2020koa, egin denez gero, jendaurrean jartzen da, interesdunek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Interesdunek aipatutakoaren gaineko dokumentazioa udal idazkaritzan izango dute eskuragarri, jendea hartzeko orduetan.

Era berean, zerga ondoko epeetan kobratuko dela iragartzen da:

A) Araututako epea: 2020ko apirilaren 20tik ekainaren 19ra.

B) Betearazpen epea: 2020ko ekainaren 20tik aurrera betearazpen epeari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, premiamendu urrituzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Ozaeta, 2020ko martxoaren 10a

*Alkatea*

**IGOR MEDINA ISASA**